

Noqua!!

2000ko martxoaren 24a V.urtea

Usurbil, 86. zenbakia



**Nikolas Izeta
omenduz**

Zabalalikekin, datorren asteburuetan
poltsikoko bi hiztegi dohainik

Euskara - Gaztelania
Castellano - Euskara

Martxoaren 25ean eta 26an



Euskara


Apirilaren 1ean eta 2an



Legunzailea





Laurok eta Lizardi
liburudendetan salgai



Prezioa: 975 pezeta



TXIMINIA
ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Eneko!** Martxoaren 13an 2 urte bete zenituen. Segi orain bezain alai eta pizkor. Muxu pila bat aita, ama eta Oinatzten partez.



Zorionak **Maddi!** Martxoaren 23an lehenengo kandela-foxa piztuko dugu. Muxu handi bat. etxeokak.



Zorionak **aitona Felix!** Martxoaren 13an 63 urte bete zenituen. Ondo pasa genuen sagardotegian zure kontura e! Xabier eta Ane.



Zorionak osaba **Luis!** Martxoaren 29an 31 urte beteko dituzu. Ea ba zer-baitera gonbidatzen gaituzun. Xabier eta Ane.



Zorionak **Xabier!** Etxeko gizontxoak martxoaren 29an 7 urte beteko ditu. Ondo pasa lagunekin eta etxeokekin. Muxu bana aita, ama eta Aneren partez.



Urteaskoan aitona! Zure emazte, seme-alabak eta Joana, Iñaki, Ane eta Aitor zure hiloben partez. Ea afari eder batetara gonbidatzen gaituzun. Ondo pasa.



Zorionak **Maialen!** Martxoaren 12an zure urtebetetze eguna izan zenez, urteaskoan.



Aupa **Rosendo!** Datorren martxoaren 30ean badakik zer egun den. Ez haiz libratuko ez! Zorionak!



Zorionak eta muxu handi bat zure urtebetetzean. Beti bezain jator jarrai dezazula. Etxeokak.

Hona hemen edonor zoriontzeko tarte. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: apirilaren 7a

Ekartzeko azken eguna: martxoaren 31a

Jaiotzak

Garazi Andres Moro
(2000-02-25)
Santuenea

Jon Ibargoien Alvarez
(2000-03-11)
Olarriondo

Hildakoak

2000-03-06
Dolores Martiarena Oiarzabal
81 urte
Kaleberri



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria




Euskal Herra!

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitetz,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

- X Idiazabal gazta
- X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Oindegia - Gatzetgia

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaúa! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaúa.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaúa/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaúa! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan



Zuzenbidea eta euskara

Nagore Segurola

Zuzenbideko lizentziaturako 4.mailako ikaslea)

Txoko honetan idazteko eskatu didatenean, niri dagokidan gaiari buruzko gogoeta bat egitea pentsatu nuen, hots, zuzenbideko ikasle izanik horri loturikoa. Lehenik, UEMA-ren aurkako epaia aztertzeari ekin nion, baina azterketa sakonagoa egitea eskatzen duenez, denbora ezagatik aukera hori baztertu nuen.

Esan behar da euskara eta zuzenbidea ditudala azken urte hauetan eta egunero lantzen ari naizen arloak. Biak uztartu nahirik eta ezagutza maila zabaldu asmoz lerro hauek idatzi ditut.

Lehenik eta behin bi ardatz nagusi aipatu nahi nituzke: zuzenbidea eta hizkuntza. Edonola ere, bi osagarri horiek norabide gabekoak izango liriateke aldez aurretik beroriek kokatuko ez banitu gure egoera eta inguruabarrik zehatzenetan, alegia, Euskal Herrian bizi ditugun zuzenbide/ak eta hizkuntza/ak artean direla.

Aipua ez da berria baina honako bi puntu hauek azpimarratzeko modukoak ditugu:

- Euskararen egoera bera (funtzio-etan gutxiagotua)

- Euskal Herriko herrialde batzuetan egun bizi diren autogobernu fenomenoak, horiek ekarri baitizkio- te euskarari premia berriak eta jorratu gabeak, batez ere, Herri Administrazio, komunikabide eta irakaskuntzan. Erabat ezezagun izan zaigu Euskal Herrian, oraintsu arte eta, salbuespenak salbuespen, bere burua elebiduntzat (euskara barne) aitortzen duen botere politiko baten presentzia.

Horiek, zalantzarik gabe, badituzte beren ondorioak, hizkuntza eta Zuzenbidearen gorabeheretan.

Historian zehar norabide eta espresamolde bakarreko izan ez dena *Zuzenbide* hitza bera izan dela esan behar da. Euskal autoreek maiz erabili izan dute *deretxo*, *eskubide*, *zuzena*, *zuzentza*, *zuzenbidea*... Azken urteotan, zail samarra izan bada ere, badirudi finkatu-

xeago dugula *Zuzenbide*arena, arau multzoari dagokiona azaltzeko; *eskubidea*, *ostera*, Zuzenbideak norbanakoarentzat sortzen duen ahalmen sorta horri legokioke jabetasun osoaz.

Historiari dagokionez, errealitate sendo eta ezinbesteko batekin topo egin dugu: euskal herrialde historikoek, bakoitzak bere esparruan, Foru Zuzenbide beregain baten jabe izan arren, ez zuten euskararentzat finkatu gune ofizial baten sorrera. Foruetan, bertako erdarak (gaztelania, nafar erromantzea, gaskoina) ziren nagusi zalantzarik gabe.

Aipatu behar da Euskal Herriko mendebaldeak autonomia eskuratu zuela Espainiako Bigarren Errepublikaren garaian, eta horrek bidea erraztu zion euskarari Zuzenbidearen bitarteko izateko. 1936-1937. bolada labur bitartean, Eusko Jaurtaritzak bere kabuz jardun zuen euskara hizkuntza ofizial gisa erabiltzen eta, ageri-agerian ere, euskal hitz juridikoen premia gorria nola edo hala betetzen. Ahalegin horren egileak, nolani ere, euskararen barnean lehendik ziren hitz juridikoak erabiltzera lerratu ziren neurri batean, hizperrien bidea nagusiki hartu bazuten ere. Horrenbestez, gerraren poderioz hilean gelditu zen horrek, bazuen nondik jo. Horren ondoren, porrot mingotsa eta gerra ondoko giro iluna.

Jakin badakigu, azken hogeita hamar urteotan, erabakigarri gertatu dela hizkuntzaren batasun bidea eta, ondorenez ere, horren gaurkotzea. Proiektuak sendotu ahala, Zuzenbideari ere bere txanda heldu zitzaion. Horrela, UZEIren barnean biribildu zen lehendabizikoz, modu antolatua, orokor eta oro-hartzaile baten bidez, Zuzenbidearen munda euskaraz ematea.

Azkenik, arestian esan bezala, etengabeko egokitzapenak behar ditu hizkuntzak baina horretarako, nire ustez, tradizioa ezagutu egin behar da, tradizioan oinarritu.

Azala

Nikolas Izeta zena Zubietako Santio jaietan

Berriketan



Maribel Cabrera Chamba

Mikel Elexpe Ekuadorren ezagutu eta hona etortzeko erabakia hartu zuten lehengo urteko maiatzean. Ohiturak oso desberdinak izan arren, moldatzen ari dela dio eta orain apirilaren 23aren zai dago, orduan jaioko baita beraien alaba.

Non jaio zinen?

Ekuadorren jaio nintzen. Hegoaldean dagoen Loja izeneko herri batean.

Nolatan hartu zenuen hona etortzeko erabakia?

Mikel han ezagutu nuen. Nik Padre Julio Villarruel aterpean egiten nuen lan. Umeen laguntzarako aterpe bat da hura eta diru-kontulari bezala aritzen nintzen. Han nengoela ezagutu nuen Mikel, berarekin ibiltzen hasi eta biak hona etortzeko erabakia hartu genuen.

Zer iruditu zaizu Euskal Herria? Eta hemengo jendea?

Hemen inguruan pixka bat ibili naiz eta oso polita iruditu zait. Hizkuntzarekin daukat zailtasun handiena, baina pixkanaka ikasten ari naiz eta hitz batzuk segituan ikasi nituen. Jendeak ondo hartu nau eta lagun handiak egin ditut. 1999ko maiatza bukaeran etorri nintzen eta ezagutu dudak jendearekin oso ondo konpontzen naiz.

Bizitza oso ezberdina al da Ekuadorren eta hemen? Non aurkitu dituzu desberdinasun handienak?

Kulturaz gain, ohiturak ere oso desberdinak dira, baina pixkanaka moldatzen joaten zara. Desberdintasun handienak horiek dira: bizitza maila eta ohiturak. Hemen, egoera ekonomikoa askoz hobea da han baino.

Gehien harritu ninduen ume guztiak frontoi inguruan nola elkartzen ziren ikustea izan zen, han ez baitago horrelakorik.

Poteo deitzen duzuen ere han ez da aurkitzen, ez dago koadrilatan ibiltzeko ohiturarik. Jendea lagunartean ibiltzen da, baina ez era horretan: tabernaz taberna eta giro horretan.

Umeari zer jarriko diozue, izen euskalduna ala ekuadortarra?

Izen euskalduna jartzea erabaki genuen. Neska izango da eta Ane izena jarriko diogu. Apirilaren 23rako espero dugu.

Hemen geratzeko asmoa al duzu?

Bai. Asmo horrekin etorri ginen, gainera Mikelek lana du hemen eta nik ere lana aurkitu dut.

Andatza
S.L.
Carrocerías

Industrialdea
Errota Berri kalea
Tlf: 36 36 77



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Hemen duzu
zure
publizitatea
jartzeko
aukera

P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



HERRIKO TABERNA



Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubietrenean, 10
Tlf. 943 37 18 07- Faxa: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Eukene Kamino



Aldatza baserriko perrategia

Konturatuko zinetenez azken denboraldi honetan ohitura zaharrak errepasatzen ari naiz eta oraingo honetan "Aldatza" baserriko perrategiko kontuekin natorkizue.

Garai batean Txokoalde eta San Estebango abere eta ganaduen perren "klakatekoak" entzutea ohikoa zen. Hauek perratzeko lekua Usurbilen eta Aginagako Baldagorri bakarriz zegoen. Egun batean Aldatzako Joxe Iturralde zenak bere behia perratzeraz zeramala, bidean izugarritzko eskapada egin omen zuen kotxe batekin, eta han zela Urdaiaga aldeko ganaduentzat inguruan perrategi bat beharrezkoa zela ikusi zuen. Honela, duela 32 urte inguru lagunarte bat sortu

omen zen eta perrategia Txokoaldeko kaian egitea pentsatu omen zute. Baina han tokia ez zela eta Joxek "Aldatza" bere baserrian txoko bat eskaini omen zuen. Baserritar batzuk bazkide bezala elkartu eta bakoitzak 1.200 pezeta ordainduta Joxe Vitoria "Herrenak" eraikitako perrategia dugu hau. Inork behar izanez gero Zubietako "Artxuri" batzutan eta Joxe Vitoria bestetan etortzen omen ziren ganaduak hanka azpian zituen zauriak sendatu, tenazekin hatzazalak moztu eta perrak jartzera.

Honetarako behiak, idiak edo beste abereak kateekin lotu, uhalak tripa azpitik pasa eta poleekin igotzen zituzten. Eta premian aurkitzen zaretenontzat oraindik ere martxan dagoela aipatu behar da.

Aizu! Antton Mari, eskerrik asko eh...



KALEBERRI

Ines Kamino



Iruzurgile bat dabil dendetan

Aste honetan jakin dudanez, gure auzoko dendetan iruzurgile bat ibili da.


Duela urte bete inguru ere aritu zen beste bat gure dendariak engainatu nahian. Orduan zebilenak bilete faltsuak erabiltzen omen zituen. Oraingoan lan egiteko modua hau da: dendara joan, erosketak egin eta bost mila pezetako biletearekin ordaindu ostean, dendaria nahastu eta biletea eta bueltak sartzen ditu poltsikora. Abilidadea behar da gero! Beraz, badakizue adi ibili.

Beste kontu bati ere eutsi nahi nioke, berziklatzeko ontziei buruzkoa, hain zuzen ere. Berziklatzeko kontua nahiko

zabalduta dago, jende askok botatzen ditu papera, plastikoa zein kristalak berziklatzera, baina nola? Askotan ontziak beteak egoten dira eta papearak kanpoan utzi beharra dago. Beste askotan, berriz, presa edo alperkeria dela, kanpoan uzten ditugu.

Ez da oso etikoa birziklatzearen alde egitea eta inguru narrats-narrats uztea, beraz, birzikla dezagun baina zain dezagun birziklatzeko modua eta txukun erabili ditagun ontziak.

Azkenik igandean, hilak 12, buruz buruko pelota txapelketaren finalerdia eta finala izan ziren. Irabazlea **Haritz Urdanpilleta** izan zen, bigarrena **Javi Sancho**, hirugarrena **Mikel Ibarreta** eta laugarrena **Imanol Zarautz**, "Troia".



KALEZAR

Ugaldea industrialdea

Ainara Uribe



Aurreko batean, autobu-saren zain nengoela Kalezarko geltokian, inguruari begira jarri nintzen, badakizue denbora nolabait pasa behar eta...

Begira-begira geltokiak duen itxura narratsaz ohartu nintzen: banku bat dago, baina nahiko lan non exeri asmatzen! hautsez beteta baitago. Lurra ere zikinkeriz estalita dago eta paretak iragarki zahar eta puskatuez apainduta daude. Egia esan desastre xamar.

Ingurukoaren hausnarketa burutu ondoren, atzekalderuntz mugitzea erabaki nuen. "Total patatas", Ugaldea industrialde-

ko bidexka hori ere nahiko zatar baitago.

Parez pare kristalarekin lan egiten duen lantoki bat dago eta honen aurrealdea kristal txikituz josita dago, itxura erabat zikina ematen duelarik.

Beraz, nahiko argi gelditu da gure auzoko behaldea hori egoera tamalgarririan dagoela. Norbaitek izango du, ba, hori txukuntzearen erantzunkizuna! Jakin badakit lan-gune bat dela, jakin

badakit gune hauek egoera tamalgarririan egon ohi direla askotan, baina hau txukuntzea ez litzateke soberan egongo. Lehendik ere ez dira oso toki politak izaten industrialdeak eta, pentsa, gainera, batere zaintzen ez baditugu!



ATXEGALDE

Udarregi kolejiyua?

Zaloa Arnaiz



Ikasturte erdia baino gehiago pasa da eta betiko moduan gure herriko txikiak, beren gurasoek lagunduta, hortxe joaten dira egunero Udarregi ikastolara. Iaz eraikin berria estreinatu zuten, nahiz eta horren berria ez izan. Garai batean Ageri-Alde ikastetxea izan zenaren pasiloetatik korrika ibiliko dira, ziurrenik anderei-noak ezin harrapatu.

Gaur egun Ageri-Alde ikastetxea izan zenaren zati haundiena udalaren esku dago; Udarregi ikastolak eta hastapen tailerrak erabiltzen dute. Beste zatiak, berriz, Hezkuntza

**COLEGIO
AGERI-ALDE
IKASTETXEA**

Delegazioaren esku darrai eta Helduen Hezkuntzarako (EPA) erabiltzen da.



colegio público
AGERIALDE
herri ikastetxea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, JARDUNARITZA
ETA NEURRIKIDETZADEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
QUIRURGIA Y SANIDAD

Hala ere, oraindik Hezkuntza Delegazioak bere egunean jarritako kartelek bertan darraite. Eraikinaren aurrealdean ere, "Ageri-Alde ikastetxea-Colegio Ageri-Alde" leloa ikus daiteke era nabarmenean.

Hauk aldatzeko unea iritsi dela uste dut. "Ageri-Alde ikastetxea-Colegio Ageri-Alde" ordez, eraikinaren aurrealdean "Ageri-Alde" jarriz (ez du zertan jatorrizko izena galdu behar) eta lehengo kartelen ordez, egungo erabileren berri emango duen beste bat jarriz; Udarregi ikastola, hastapen tailerrak...

SANTUENEA

Auzotarrak telebistan

Paco Agudo



Askotan esan didate Santuenekoak bilbotarren modukoak garela, gutxien espero duzun tokian azaltzen garela.

Seguru horixe bera pentsatu zuela bat baino gehiagok pasa den ostegunean telebista piztu eta auzotarren bat ikusi zuenean. Izan ere auzoko jubilatuek zein jubilatuek ez diren batzuk, ETBko "Esta es mi gente" programan izan baitziren. Ikusle modura joan omen ziren eta gustora



ibili omen ziren kamara aurrean.

Agian norbaitek bere bokazioa bilatu zuen ETBn eta orain Goenkalen edo lanean hasteko gogoz dabil, auskaloi!

Bestalde, Merke Taberna berriz ireki dute, bi hilabete inguru itxita egon ondoren. Hasieran asteburuetan bakarrik irekitzen zuten, baina arazo batzuk zirela medio, azkenean guztiz itxi zuten.

Orain, konponketa batzuk egin ondoren berriz ireki dute.

Azkenik, trenbide aldera doan bidean, Telefonikako poste bat erori zen duela hilabete batzuk izan ziren haize bolada gogorren ondorioz. Hilabete luzez egon da postea lurrean eta duela aste pare bat konpondu zuten.

URDAIAGA

Betiko komeria

Alazne Begiristain



Orain ere, hemen naiz, beti bezala, zer idatzi ez dakidala. Txorakeria bat dirudi, baina oso zaila da lerro hauek betetzea, izan ere, gurea bezalako auzo txiki batean ez dago hamabostean behin



kontatzeko berri nahikorik, nik dakidanik, behintzat.

Hori honela izanda, lerro hauek nolabait bete behar ditudala eta, gure auzo honetan paseotxo bat egitea otu zait, ea zerbait berezirik ikusten dudan-edo. Baina, hemen ez da horrelakorik.

Hala ere, zer pentsatu eman dit ibilaldi honek; zenbat bider pasa ote gara leku batetik, hau aldatu egin dela konturatu gabe?

Gure auzoa ere, pentsatzen jarriz gero,

asko aldatu zaigu denbora gutxian; parkea dela, errepideak direla, aparkaleku ugari bazterretan, zabortegia nahiko hutsa, etxe ugari berrituta,...

Bai, bai,...orokorrean hartuta gure auzoa aldatu egin da. Oraingo Urdaiaga ez da nire txikitako Urdaiaga (eta hori ez direla hainbetse urte pasa).

Beno, zerbait idatzi dut, behintzat. Agian, ez da oso interesgarria izan, baina ahaleginak egin ditut honetan.

Azkenik, somatzen da udaberria ere badatorrela. Txoriak hasi dira kantari, loreak hasi dira belardietan hazten, zuhaitzak indartzen,...

AGINAGA

Aldapa baserrira doan bidea

Maria Angeles Arruti



Azkenengo uholdeen arrastoa ez da hain erraza borrotzen, gure ingurune hauek nahikoa txukundu dituzten arren, oraindik badago zer txukundua. Izan ere, Aldapa baserrira daraman bidea egoera tamalgarrian dago. Uholdeekin izan ziren lur jausiek egoera txarrean utzi zuten bidea eta oraindik txukuntzeko dago. Egia da Udalak ingurune hauek guztiak nahikoa txukun utzi dituela, baina horixe da falta zaiena; Aldapa baserrira doan bidea txukun-txukun uztea, bertakoak, behintzat, eska ari dira-eta.

Bestalde, tarte berezia eskaini nahi nioke gure auzotar bati. Orain arte bera aritu da txoko hau betetzen. Aurten, ordea, Zaragoza aldera joan zaigu ikastera eta ni, ahalik eta hoberen betetzen saiatzen naiz Izaro Aizpuruak utzitako hutsunea. Datorren apirilaren 23an 19 urte beteko ditu eta besarkada haundi

bat bidali nahi nioke. Ondo-ondo pasa eta zaindu. Asko gogoratzen gara zurekin. Zer moduz, pasa al zaizu "susto" txiki hura?



ZUBIETA

Hipodromo aldean bada mugimendua

Xabier Arregi



Martxoaren 26an hasiko dira zaldi-lasterketak Zubietako hipodromoan. Udaberriko denboraldi honi ekiteko berrikuntzak egiten hasi da Donostiako udala. Esan digutenez, momentuz hipodromo barrua konpontzen saiatuko dira; baina, gure eskaerei erantzunez, etorkizun hurbilean inguru guztia txukun-txukun jartzeko asmoa dute. Ikusiko dugu ea hasitako lanak ondo bukatzen dituzten.

Hipodromotik hurbil, Itxiberrietako inguru horretan (Bugati aldean), garraio-gune

bat eraikitzeko proiektua onarpen fasean da dagoeneko. Gipuzkoako Diputazioak bultzatu du proiektu hori, kamioiak aparkatzeko toki eskasiari nola baiteko irtenbidea aurkitu nahian. Donostiako Udaleko Gobernu-Batzordeak otsailaren 8an onartu zuen Plan Orokorreko elementu batzuk aldatzea, proiektu horren baldintzetara egokitzeko.

Garraio-gunearen proiektuak 160.000 m-tik gorako lur-sailak hartzen ditu (22.500 m. aprobeztatzen dira), Itxiberrietako biribilgunetik hasi eta Abalotz

aldera, errepide nagusiaren gainaldean.

Hiru partzela nagusi jasotzen ditu proiektuak. Partzela batean 238 kamioientzako aparkalekua dago proiektatua, eta beste bietan hainbat zerbitzu jasotzen dira: gasolindegia partikular bat, hotela,...


Kontua da, batetik, inizatiba publiko honen atzean negozio partikularrak daudela; eta, bestetik, Zubietako lurak, berriz ere, zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen ari direla. Noizbait egokitu ahal zaigu zerbitzuak jasotzea ere!

Lanbide prestakuntzarako ikastaro berriak gure eskualdean

Eskualdeko zenbait udalek, INEMekin lankidetzan 2000. urterako Lanbide Prestakuntzarako zenbait ikastaro antolatu dituzte. Ikastaro hauek lanik gabe daudenei zuzendurik daude eta kasu guztietan INEMeko Enplegu Bulegoan eman behar da izena. Ikastaro bakoitzean 15 ikaslek parte hartu dezakete.

Ikastaro hauek eskualdeko langabetuei zuzenduta daude. Partehartzaileek enplegurako gaitasun maila haunditzea da ikastaro hauen helburu nagusia eta burutzen diren prestakuntza espezialitateak lan merkatuko ikerketetan oinarrituta daude.

2.000. urteko ikastaro hauek udalen arteko koordinazio lan baten emaitza dira. Zenbait ikastaro aurreko urteetan ere eman izan dira, baina beste batzuk aldatu egin dira,



Hernani eta usurbilen emango diren ikastaroak adibidez. Hauek, profesionaltasun araudiaren barruan egotera pasa dira. Kasu guztietan, ikastarok amaitu ondoren enpre-

tan praktikak egiteko aukera egongo da. Informazio gehiago nahi izanez gero Usurbilgo udaleko Garapen Ekonomiko eta Enplegu arloa jo dezakete.

Ikastaroa	Udalerrria	Hasiera data	Bukaera data	Iraupena	Non emango diren
Automobilien txapa eta pintura	Andoain	00/06/26	00/11/30	500 ordu	Lanbide Prestakuntza ikastetxean
Gozogintza	Hernani	00/07/03	00/11/30	465 ordu	Traspacer prestakuntza ikastetxean
Automobilaren mekanika	Hernani	00/05/02	00/12/15	850 ordu	Traspacer prestakuntza ikastetxean
Hozkailugile komertziala	Lasarte	00/04/05	00/09/29	650 ordu	Lanbideetako Eskola
Igeltseritza	Lasarte	00/07/06	00/11/27	400 ordu	Lanbideetako Eskola
Pintore-papereztatzaile	Usurbil	00/05/02	00/11/30	600 ordu	Aginagako Pintura Tailerra

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**
LOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54



Urteina Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Ostape Aranguren

GASA
eta

BEROKUNTZA

Telf: 943 36 43 64 - 610015389

**INDYSTRRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

Kataluniarrak kantari Usurbilen martxoaren 25ean

Oraingoan bai. Zumarte musika eskolak lortu du beste herrialde bateko koru batekin harremanetan jarri eta elkartrukatzea gauzatzea. Oraingoan Katalunia aldera jo eta ez dute arazorik izan. Kataluniarrak hona eta usurbildarrak hara, batzuk martxoan eta besteak azaroan edo abenduan, hurrenez hurren.

Martxoaren 25ean kataluniarrak izango dira kantari Usurbilen. Zumarte Musika Eskolak elkartrukaketa bat antolatu du Kataluniako "Cor Infantil Sant Cugat!" abesbatzarekin eta egun horretan Usurbilen izango dira egunpasa egin eta kontzertu berezi bat eskaintzeko.

Abesbatza hau martxoaren 26an Zumarragan antolatzen den "Antigua abesbatzak" lehiaketan parte hartzera dator eta bide batez Zumarte Abesbatzarekin elkar ezagutu eta abestera. Ikastetxe eta herrietan musika zabaltzeko asmoarekin sortu zen eta asteburu honetarako Sant Cugat del Vallés eta Sabadellgo ikastetxe ezberdinetako abesbatzak elkartu dira: Sta. Isabel ikastetxeko abesbatza, Salesiana Joan Bosco eta Sant Cugateko eskola koraleko haur abesbatza. Koral eskola hauetan lau eta



Zumarteko koru txikia Kataluniara joango da urte bukaera baino lehen

hamaika urte bitarteko haurrak daude, baina Usurbila zortzi eta hamaika urte bitartekoak etorriko dira.

Martxoaren 25ean, goizez Donostia inguruan ibilaldi txiki bat egin ondoren, eguerdiko 12.00etan udaleko ordezkariak eta Zumarte Abesbatzak udaltxean harrera berezi bat egingo diete.

Bazkaldu eta gero, Sant Cugateko Abesbatzak,

Zumarte Abesbatzak eta baita musika eskolako zenbait talde instrumentalek ere, kontzertu bat eskeiniko dute arratsaldeko 18.00etan Salbatore parrokiari. Talde instrumentalen artean, bertakoak diren instrumentuak ezagutzeko aukera izan dezaten, txistu taldea eta albokako taldea izango dira Guzti hau Usurbilen izango da baina, azaroa edo abenduan Zumarte Abesbatza izango da Kataluniara joan eta bertan asteburu bat pasako duena. Oraingoan, martxoaren 25ean Sant Cugateko talde honi merezitako harrera eta interesa adieraztea ezinbestekoa da, beraz, arratsaldeko 18.00etan Salbatore parrokiari espe- ro zaituztegu. Ordurarte!!

Zumarte Musika Eskola

escola 
Coral

**KALEZARRA
KARROZERIA**



TXAPA KONPONTZEA ETA PINTATZEA

BANKADA UNIBERTSALA

Ugaldea industrialdea, 36
Tel.: 37 36 09

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



**RAMON
BARCENILLA**

- . Pikor- pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze-lanak
- . Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

Nikolas Izeta zenari omenaldia eskainiko dio Bota Punttuba bertso eskolak

Urriaren 4an utzi gintuen Nikolas Izeta bertsolaria, baina bere oroimena bertso lagunen barnean dago oraindik. Bapateko bertso ugari botea, bertso paperetan ere ez zen atzean gelditzen, eta bera joan bada ere bertso horiek gure artean gelditu dira. Horiek oinarritzat hartuta, apirilaren 1ean omenaldi xume bat eskainiko dio Bota Punttuba bertso eskolak Udarregi ikastolako aretoan.

1965.go irailaren 20an jaio zen. Txaramunto etxean bizi ondoren Kalezarrera joan ziren bizitzera, Gure-Ametsa etxera hain zuzen ere. 14 urte zituela hasi zen bertsoan, Joxe Mari bere anaiarekin batera, seguru-erik bere aitaren eraginez.

Izan ere, Luix Mari Izeta (aita) bertsoan aritzen zen. Nikolasi 1998ko uztailaren 17an egin genion elkarrizketan bertsogintzarako grina aita-rengandik zetorkiola esan zigun. *"Aita zana afizio haundikoa zen, Saizarren ere birritan atera zen txapelketan. Etxean beti egon izan da bertso giroa. Anaia eta biok loge-*



*la berean lo egiten genuen-
an ohera joan eta lo hartu
arte bertsoan aritzen ginen
behin baino gehiagotan. Nik*

**Nikolasi etxetik
zetorkion bertso-
rako grina. Aita
zena bertsolaria
izan zen, eta anaia
ere bai.**

*hiri gai hau, hik niri bestea..."
horrela ibiltzen ziren.*

Horrez gain, Lasarteko Landaberri ikastolan bertsolaritzari garrantzi handia ematen zitzaion, eta Nikolasek hankasi zuenez pixkanaka-pixkanaka bertsogintza odoleraino sartuz joan zitzaion. Hasieran bertso paperak egiten zituzten, eta gero pasa ziren bat-batekora.

Bertso paperetan behin baino gehiagotan parte hartu zuen Santixabel txapelketan. 14-15 urte zituela idatzi zituen txapelketa honetarako lehen bertsoak, Andatza zen orduko gaia. Geroztik hirutan izan da txapelketa honetako irabazlea, azkena 1998ko txapelketan. Orduan "Animalia bat naiz" zen gaia, eta Nikolasek azken urteetan hain maite zituen erleei zortzi bertso jarri zizkien. Bertsopaperak idazterakoan "Iparragirrenen doinua" asko gustatzen zitzaion.

Baina Nikolasen ekarpena ez da bertso paperetara mugatu, bat-batean ere bertso ugari kantatu baitzituen. Iruñean ikasketak egiten zituenean aitzakian Nafarroako Bertsolari txapelketan bi aldiz parte hartzeko aukera izan



zuen. Garai batean Aia eta mugetako herriekin egiten zen txapelketan parte hartu zuen eta Gipuzkoako txapelketan ere bai. Horrez gain, I. Zaldiko Mandiko bertso sariketako irabazlea izan zen.

Hala ere, herri bazkaritan edo afaritan eta lagunartean makina bat bertso abestua zen Nikolas, eta barre algara ugari sortua ere bai. Hainbeste urtetan ibili zen Bota Punttuba bertso eskolan badute horren berri. Izan ere, aurrez aipatutako guztiarengatik baino, bere umore eta gozoarengatik akordatuko gara bertsozaleak.

Guzti honengatik, omenaldi xume bat eskainiko dio Bota Punttuba bertso eskolak datorren apirilaren 1ean Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Gaueko 10.30etan hasita, Nikolasek bertso paperetan idatzitako bertsoak musikatuta entzun ahal izango ditugu besteak beste.




Gure Niko beti gogoan

Epa, Niko laguna!:

"Bertsolaritza munduan gozatzen hekien pertsona, baina aldi berean sufritzen huena, zirikatzailea baina aldi berean seriotasuna erakusten huena, euskara hizkuntzat hartat huena, eta aldi berean hizkuntzarekiko trakeskeriek mintzen hindutena. Utzi gaituk, baina hire oroimenak geure barnean iraungo dik, eta herorrek ematen diguan itzalpean bertsotan arituko gaituk, ezagutu hindugunok bertsolaritza baikenian elkar ulertzeko baliabidea. Hire irrifarrak bertsotan aritzeko grina eta garra sortzen ziguk, eta sugarra itzaliko ez denez, luzaroan jarraituko diagu abesten; gu hemendik eta hi hagoen tokitik".

Bota Punttuba bertso eskola

EGITARUA



Datorren apirilaren 1ean, larunbatean, gaueko 22.30etan Udarregi ikastolako erdiko aretoan Nikolas Izeta zenari omenaldi xume bat eskainiko dio Bota Punttuba bertso eskolak honako egitarauarekin:


- Bertso eskolako bertso eskaintza
- Nikolas Izetaren bertso-jarriak musikatuta. "Udarregi" (1995)
- Bertsolari gonbidatuen saioa:
 - Xabier Amuriza
 - Unai Iturriaga
 - Jokin Sorozabal
- Bertso jarri musikatua. "Errotonda" (1996).
- Nikolas Izetak kantaturiko eta grabaturik dauden bat-bateko bertsoen entzutea.
- Bertso jarri musikatua. "Ni animalia bat naiz" (1998)

Normaltasuna nagusi martxoaren 12ko hauteskunde orokorretan

Pasa den martxoaren 12an Espainiar kongresua eta senatua osatzeko hauteskundeak izan ziren. Gure herrian izandako emaitzei begiratzen badiegu abstentzioa izan zen nagusi, herritarren %66ak ez baitzuen boturik eman. Bestalde, EAJ izan zen botu kopururik handiena jaso zuena.

	kongr. 2000	kongr. 1996
<u>Kongresu haut. 1996</u>		
Zentsoa: 4338		
Abstentzioa: 1228		
<u>Kongresu haut. 2000</u>		
Zentsoa: 4414		
Abstenituak: 2914		
EA	250	460
EAJ/PNV	509	550
IU	52	124
PP	242	206
PSOE	363	570
EH/HB		1109

ALDERDI POLITIKO DESBERDINEN BILAKAERA



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Helbide elektronikoa berria

2000. efektua atzerapauso ez, baina aurrera begirako apustua izango da guretzat. Hasteko, nahiz eta aldizkari hau egiteko ordenadore zaharra erabili, ordenadore berria ekarri berria dugu, dugun. Bestalde, aspaldi honetan internet sarean bidaiatu ezinik ibili gara, eta noski, posta elektronikotik ezin izan dugu mezurik jaso. Orain, ordea, egunean jarri eta bi zerbitzuak eskuragarri ditugu. Hori bai, helbide elektronikoa berria dugu:

noaúa.k.e@euskalnet.net



Aginaga aldean animalia basatiak bideetara Ajeisten hasiak izango dira. Azkenengo alean bidean hilda topatu zuten katajinetaren berri eman genuen, oraingoan berriz, lepazuria izeneko animalia aurkitu dute Intxuspeko erreka parean, Lasao eta Kaparotz bitartean, bide bazterrean hilda. Animalia hau Euskal Herri osoan bizi da eta gautarra eta bakartia da. Askotan gizakiak egindako eraikuntzak erabiltzen ditu gordeleku gisa. Bularraldean duen orban zuria da lepazuriaren ezaugarri nagusia.

Haritz Urdanpileta txapel-dun


Martxoaren 19an jokatu ziren lau eta erdi barruan buruz-buruko pelota txapelketako azken partidua. **Haritz Urdanpileta** 22-17 irabazi zion **Javier Sancho** egungo txapel-dunari. Aurretik hirugarren eta laugarren postuak jokoa zeuden neurketa jokatu zen, eta bertan **Mikel Ibarreta** 22-15 nagusitu zitzaion **Imanol Zarautzi**. Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkie Saizar, Araeta eta Astiazaran sagardotegiei, Antxeta, Txiriboga, Benta eta Xabier tabernei eta Savasari.



Azkenengo hiru aste hauetan Usurbilgo Judo Elkartek modalitate ezberdinetan parte hartu du. Borroka olinpikoan, Gasteizen egindako Euskadiko Senior Txapelketan **Vanesa Guevara** eta **Iker Lizarribarrek** urrea lortu zuten. Gijonen, Espainiako txapelketan, berriz **Vanesa Guevarak** zilarra bereganatu zuen. Sanbon, **Ibai Peña**, **Xabier Urkizu** eta **Mikel Pongak** Minsk-en (Bielorrusia) torneo batean parte hartu zuten. Azkenik, judoan, klubaren arteko Euskadiko senior txapelketan Usurbil A eta Usurbil B taldeak lehen eta bigarren postua eskuratu zuten.



Pasa den martxoaren 18an sua izan zen Orioko Benta aldean. Sutea arratsaldeko 19.30ak aldera piztu bazen ere, haizearen ondorioz azkar zabaldu zen Usurbil eta Oriok muga egiten duten lurretan. Oriotik Igeldora doan errepidea ere moztu behar izan zuten, suak bidea zeharkatu baitzuen Aizperro aldean. Pare bat orduz bidea itxita egon bazen ere suhiltzaileek berehala amatatu zuten bide inguruko sua. Gaueko 10.30ak alderako kontrolpean zuten guztia. Hala eta guztiz ere, zenbait hektarea erreta gelditu dira sute honen ondorioz.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Pelotaren etorkizuna hauen eskuetan

Haurrak badute pelotan jokatzeko gogo. Hori ondorioztatu genuen behintzat pasa den martxoaren 19an frontoian egon ginenok. Azken hilabeteetan txapelketa jokatu dute herriko pelotari gazteek, eta egun horretan jokatu ziren azken partiduak. Batzuk irabazle, besteak galtzaile, baina denak pelotari.

8 urtetik 14 urtera bitarteko haurrak protagonista izan dira azken hilabeteetan. Eskuz pelotan entrenatzen ikusi ohi ditugu herriko frontoian, baina oraingoan txapelketa ere jokatu dute beraien artean. Martxoaren 19an jokatu ziren azken partiduetan maila polita



eskaini zuten herriko pelotari gazteenek.

Azkenean denak gustora. Batzuk irabazi zutelako, besteak kopa jaso zutelako, eta

gainerantzekoak txapelketan parte hartzeagatik pelota bat eman zitelako. Pelotak ba du etorkizuna, ea ba denbora askoan jarraitzen duten pelotan.



Finalerako emaitzak

8 urte

Eñaut Pagola 18
Eñaut Oiarbide 11

9 urte

Xabier Santxo 18
Jokin Irastorza 5

10 urte

Unai Olaizola 18
Eñaut Esnaola 9

11 urte

Iñigo Irastorza 18
Jon Esnal 8

12 urte

Iñigo Olasagasti 18
Joseba Bengoetxea 12

14 urte

Ibai Orena 18
Aitor Iturralde 5

JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil

☎
37 00 08

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

N • U
Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Arizte 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

H erorrek esan



Mari Jose Ibargoiien

Atxegalde

Nere ustez, ahal duten neurrian senarrek etxean laguntzen dute. Seme-alaben artean, ez dut uste bereizketa ematen denik. Hori bakoitzaren izaeraren araberakoa da, neska izan edo mutila izan.



Lurdes Pagola

Kalezar

Nere etxean nik egiten ditut ia etxeko lan guztiak. Oheak eta egiten dituzte, astebukaeretan ere gehiago laguntzen dute, baina... Gauzak aldatzen ari dira, baina gehiago egin beharko lukete, emakumeak ere lanean hasi direlako. Arazoa zera da, ez dutela beharra bezala hartzen.



Roxendo Lizaso

Munalurra

Batzuk neskamekin eta horrela ibiltzen dira, gu behintzat erdi ta erdi egiten dugu. Seme-alabek, berriz, ez dute deus egiten. Oraingo gazteek nekez laguntzen dute etxean, beraiena eta beraiantzako adina, askoz gehiago ez.



Mikel Guerra

Galtzaragaina

Egia esan, nik etxean ahal dudan guztia egiten dut, bakoitzaren lanaren arabera. Horrela izan beharko luke orokorrean, ezta? Nere ustez, matxismoa bukatzen ari da. Jendea kontzientziatzen ari da, gazte jendea batez ere. Belaunaldi aldaketa dela eta, orain agian emakumeak dira gutxiago egiten dutenak.



Aizpea Manterola

Kalezar

Datu hauen arabera, ikusten da oraindik ere ez dagoela berdintasunik. Etxeko lanak banatzerako orduan, neskek gehiago egiten dute, nere etxean behintzat hala gertatzen da. Nere anaiak ez du kolperik jotzen. Emakumeok etxetik kanpo gure obligazioak ditugu, eta gainera etxean ere lanak egin behar ditugu.



Jesus Tapia

Atxegalde

Gure etxean, behintzat, lanak banatzen ditugu, bakoitzak

lanak ahal dituenegian egiten ditu. Lehenago nik ez nuen asko laguntzen etxean, orain gauzak aldatu egin dira eta gehiago egiten dugu. Seme-alabek ere buila batzuk botata egiten dute.



Sergio Martin

Munalurra

Datu horiek egia esaten dutela iruditzen zait, baina gaur egun gizonez-

koek gehiago laguntzen dute, garai batean baino gehiago bai behintzat. Pixkanaka-pixkanaka emakumeak gortzen doaz. Nik laguntzen dut. Seme-alaben artean ere badago alderik, hala ere hori etxe bakoitzaren arabera izaten da. Badiirudi emakumei berez ateratzen zaien gauza bat dela, gizonezkoei, berriz, gehiago kostatzen zaigu.



Milagros Iribar

Kaleberri

Komeni zaienean bakarrik egiten dute, ez dute inoiz beharrik izaten.

Seme-alaben artean ere, berdindu neska edo mutila izan, ez dute asko laguntzen etxeko lanetan. Gaurko belaunaldikoez ez digute lanik kentzen gurasooi, eta askotan guk seme-alabei lana kentzera jotzen dugu. Agian gure arazoa da.

Gureak : la 30 urte gutxiuak lan munduan sartzeko borrokan.

1 972. urtean sortu ziren lehenengo gutxituentzako lantokiak. Ordurarte hauen egoera ez zen batere erraza, etxean oztopo bat ziren, lanerako inolako aukerarik ez baitzuten. Gaur egun egoera oso bestelakoa da eta honetan guztian zeresan handia du *Gureak*ek.

Gureak babestutako tailerren sorrera ulertzeko 1972 urteari erreparatu behar diogu. Urte honetan, "Gipuzkoako atzeratuen aldeko elkarteak" (gaur egungo *Atzegik*) Donostian eta Bergaran atzeratu helduentzako lehenengo lantokiak sortu zituen. la mende bateko borroka emandako fruitua zen. Egin beharreko hurrengo lana atzeratuak lan merkaturuan sartzea zen.

Pertsona hauek lanerako eskubidea bazuten arren, proiektu honen bultzatzaileek bazekiten oso zaila zela enpresa pribatuek gutxitu

hauek lanerako kontratatzea, beraz, behar-beharrezkoa zen babestutako tailer batzuen sorrera.

Azkenean, *Gureak* babestutako tailerrek izaera juridiko propioa lortu zuten 1975ean. Helburua garbia zen: Minusbaliatuen hezkuntza, errehabilitazioa eta prestakuntza bultzatzea lan mundura sartzeko.

Gureak ,nagusiki, Gipuzkoako gutxitu fisiko zein psikikoei zuzenduta dago. Hasieratik, helburutzat izan dute Gipuzkoako herri bakoitzean gutxituentzat lantoki bat sortzea. Gaur egun *Gureak*ek lan zentruak ditu honako herrietan: Arrasate, Astigarraga, Bergara, Donostia, Eibar, Hernani, Irun, Itsasondo, Azkoitia, Lasarte-Oria, Legazpi, Oiartzun, Orio, Ordizia, Tolosa eta Aginagan.

Ezaugarri ezberdinak dituen jende multzo honentzat lanak edo zereginak finkatzea ez da lan erraza, bide asko jorratu

eta aztertu behar izan dituzte. Baina *Gureak*en sorreratik, argi geratu da ekonomiaren alor ezberdinetan egon badaudela gutxituek egin ahal dituzten lanak, minusbaliatasun maila handia izan arren.

Haseran inongo irabazirik lortzeko asmorik gabe sortu zen *Gureak*. Baina urteak aurrera joan ahala, tailer hauen handitzea eta oparotasuna nabaria izan da eta, gaur egun, izaera juridiko propioa duen enpresa gisa jokatzeko du *Gureak*ek merkatuan. Hau da, dabilen sektoreko kompetentziarekin lehian aritzeko moduan da. Hala ere, bere lehenengo eta funtsezko helburua ez du ahaztu, hau da, minusbaliatasunen bat duten pertsonen integrazioa gizartean eta lan munduan.

Usurbildarrak Gureaken

*Gureak*en beste ezaugarri funtsezkoa, lanpostuen ingu-

Gureak-ek hartu du Aginagako gasolindegia

Aginagako irteeran, Orio aldera zoazela, bidea-aren bi aldetara dauden gasolindegia *Gureak*en esku gelditu dira.

Pasa den abenduaren 31ean ireki zen GUREGAS gasolindegia Aginagan. Bertan hamabi lagun ari dira lanean, guztiak ingurukoak; zarauztarrak, lasartearrek, oriotarrak zein Aginaga bertakoak. Batzuk lehenik GUREAK eko beste tailerretan aritu izan dira, beste batzuk, berriz, lehenengo aldiz dihardute GUREAKekin lanean. Gustora omen daude, nahiko jende hurbiltzen omen da eta oraingoz, behintzat, ez omen dute inolako arazorik izan: "Guk ahalik eta goxoen tratatzen dugu jendea eta erantzuna ona izan da, ez dugu inolako arazorik edo begiratu txarrik izan."

Tolosan eta Miramonen ere baditu gasolindegia *Gureak*ek.



ruan darabilkien hazkunde politika da. Ildo honetatik, urtero 60 lanpostu inguru sortu izan ditu azken urteotan, gaur egun 2.500 pertsona inguruk dihardutelarik bertan lanean. Hauetatik 27 usurbildarrak dira; 15ek "minusbaliatuen errehabilitazioa" deritzen alorrean dihardute, batek *Gupost* deitzen den publizitate alorrean, 3 *Guregaseko* langileak dira (gasolindegia), 7 *Galanteko*ak, garbitasun alorrekoak eta beste batek *Goiar* deritzen garbitegi industrialean.

"Gureak taldearen helburua, gutxituak gizartean eta lan munduan integratzea da."

Baina kontua ez da kantitatean haztea, kalitatea ere zaindu beharreko kontua da. Gauzak horrela, *Gureakek* bere langileen lan-baldintzak eta hauen lanaren kalitatea zaintzen du, aurrera begira hauek beste enpresatara joateko aukera izan dezaten.

Gureak taldearen helburua, gutxituak gizartean eta lan munduan integratzea izanik, azken urteetan saiakera bere

Gureaken barne dauden alor ezberdinak:

- ✎ **Gureak babestutako tailerrak:** muntaiak, mekanizazioak, enbalajeak, muntaia elektronikokoak, kable-muntaiak...
- ✎ **Goiplastik:** plastikozko piezak garatzen dituzte, automoziorako, enbalajerako, kosmetikarako, eraikuntzarako...
- ✎ **Gureak Oiarzun, Goiar:** garbitegi industrialak, ospitalak, egoitza eta ostalaritza arloko erropak garbitzen dute bertan.
- ✎ **Galant garbitasuna:** kiroldegiak, igerilekuak, bulegoak... garbitzen dituzte.
- ✎ **Goroldi:** lorategien diseinua eta mantenua.
- ✎ **Gudat:** dokumentuen tratamendu informatikoa.
- ✎ **Guregas gasolindegia.**
- ✎ **Gupost:** publizitate kanpainak eta bestelako bidalketak prestatzen dituzte, korreoz bidali ahal izateko.
- ✎ **Gureak ostalaritza**
- ✎ **Gureserbi :** zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte bertan.

zia egin dute lan-programak diseinatu eta martxan jartzeko. Hau bideratzeko *Zeharo* taldea sortu da, gutxituak Gipuzkoako lan merkatuan integratzeko programak garatzen diharduena.

Egun, *Gureakeko* 40 langilek zerbitzu zehatzak eskaintzen dituzte enpresa normaletan. Gainera, *Zeharoren* laguntzarekin, 18 gutxituk bestelako enpresatan lanean dihardute.


Gureaken, Gipuzkoako gutxitu fisiko zein psikiko gehienek

dute bere lekua, bere produzitzeko gaitasuna edozein dela ere. Multzo honetatik kanpo gelditzen dira adimen oso urrikoak, hau da, bakarrik moldatzen ez direnak eta pertsona baten zainketa berezia behar dutenak. Hauek, normalean, egoitza berezietan egon ohi dira.

Gainera, *Gureaken* barruan, saillkapen ezberdinak egiten dira, hau da, langileak bere gaitasunaren arabera lan batean edo bestean kokatzen dira. Lanerako hainbesteko gaitasunik ez dutenak, bestelako zereginetan aritzen dira, bere gaitasunak garatzeko mesedegarriak diren zereginetan.

Honez gain, *Gureakek* beste proiektu batzuk ere bideratu ditu azken urteotan. Batetik, adina edo bestelako arazoak medio, gaitasunak galtzen ari diren pertsonen astean ordu batzutan zeregin okupazionalan aritzeko aukera eskaintzen die. Gainera, Osakidetzarekin batera, buruko gaitasunak dituztenen integrazioa bultzatzeko beste proiektu bat ere jarri du martxan.

Amagoia Mujika





**Inaxio Usarralde
Aranzadi**

**Hizkuntza
Normalizazio lanetan
dihardu gaur egun.**

**Berak nahi duen
lagunen aurrean,
sukaldeko saltsak
bere esku.**

Entzun ditzagun gure haurrak

"Semea edo/eta alaba, barka nazazu(e)!" Etsiak jotako edozein gurasoren aitortpena izan daiteke, baina ez, ez da. Pelikula baten izenburua ere izan zitekeen, baina ez da. Rafael Molina idazle kolonbiarraren liburu baten izenburua da.

Idazle honek haurren munduaz dihardu liburuan. Zehazki, haurraren paperean kokatuz, haurrek egingo lizkiguketen aldarrikapenen zerrenda egiten du. Deigarria egin zaidanez, zuei kontatzea erabaki dut. Hitz egingo dugu arrazoi duen edo ez. Pentsa dezagun momentu batean, gure haurra hitz egiten hasi zaigula eta hala dio:

* Ez iezadazu eskatzen dudan guztia eman. Batzutan, zenbateraino har dezakedan ikusteko, muga non dagoen jakiteko eskatzen dut.

* Ez iezadazu oihurik egin. Oihu egiten didazunean, zuri dizudan errespetua galdu egiten dut, eta niri ere oihu egiten irakasten didazu. Nik ez dut oihurik egin nahi...

* Ez zaitetz beti aginduak emanez jardun nirekin. Batzutan, agindu beharrean, gauzak eskatuko baze-nizkit, azkarrago eta gusturago egingo nituzke.

* Bete ezazu agindutakoa, nola mesederako edo hala kalterako izan. Estimulu bat agintzen badidazu emadazu; errieta agintzen didazunean egidazu hura ere.

* Ez nazazu inorekin alderatu; anai-arreben artean, batez ere. Besteen aurrean nabarmenki nagusitzen banauzu, norbaitek sofritu egingo du. Eta gutxiesten banauzu, neuk sofrituko dut.

* Utz iezadazu gauzak neure kabuz egiten. Zuk nire orde egiten badituzu, nik ezin izango dut sekula ikasi.

* Ez ezazu nire aurrean gezurrik esan, ezta zugatik esan ditzauden eskatu ere, nahiz eta zu larrialdi batetik ateratzeko izan... Gaizki sentiarazten nauzu, eta pixkanaka zure hitzak sinesteari utziko diot.

* Nik gauza txarren bat egiten badut, ez iezadazu "Zergatik?" egin dudan galdetu. Batzuetan nik ere ez dut jakiten eta.

* Noizbait oker bazaude aitoren ezazu eta zuri buruz dudan iritzia

hobetu egingo da. Gainera, nire okerrak onartzen ere irakatsi egingo didazu.

* Zure lagunak tratatzen dituzun modu gozo eta atseginez trata nazazu neu ere; senide izateak ez baitu ezer kentzen gu lagunak ere izan gaitezen.

* Ez iezadazu esan zerbait egiteko zuk egiten ez baduzu. Zuk egiten duzuna ikasiko dut, eta horixe izango naiz, zuk horrelakorik ez uste arren.

* Arazoren bat kontatzen dizudanean ez iezadazu erantzun "ez dut txikikerietarako astirik" edo "horrek ez du garrantzirik". Saia zaitetz ulertzen eta laguntzen.

* Maita nazazu eta esan iezadazu. Hori esaten entzutea gustukoa dut, zuk ez dela beharrezkoa uste baduzu ere.

Hau da niri eskuartera iritsi eta edonorentzat ere interesgarria izan daitekeela iruditu zaidan zertzelada multzoa. Ez zait iruditzen, orain, hemen aipatu direnei buruz, bai egi borobilak! itsu-itsu esan behar dugunik. Honi buruz zer edo zer pentsatu eta, etxean, lagunartean, gazte eta ez hain gazteen artean hizketarako gaia jarri badizuet gustura nintzateke.

Izan ere, askotan (gehiegitan?) pentsatzen dut lagunartean hizketan aritzeko plazerra galtzen ari garena. Jarri jendea elkarri begira, trago bat-bi eta gainontzean isilik. Eta hizketan sumatzen direnekin berriz, eguneroko gorabeheretatik harantzago ez dagoela hizketa gairik ematen du. Kontuz! Ez naiz esaten ari eguneroko gorabehera horietaz ahaztu egin behar dugunik; baina hori esatearekin batera beste hau ere garbi daukat, nik behintzat: nire buru osasunaren mesederako, lehenik eta behin, hitz egitea behar-beharrezkoa dut eta bigarrenik, tarteka, betikoak ez diren gaiei buruz aritzea komeni zaidala esaten dit buru ero honek. Eta betikoak ez diren gaiei buruz aritzeko nik behintzat, bi modu darabilzkit aspaldi honetan: bat, gure aitona-amonekin elkarrizketan jardun eta bi, edozein irakurgaitik sor daitekeena. Gaur bigarren hau erabili dut zuen artean. Hurrengoan... auskalo!



Bota bertsoa

Asteko gorabeherak

Astelehenetik iganderaino
luzatzen zaigu astea,
egun bakoitzak bere atzetik
ekartzen digu bestea.

Astelehena egun tristea
iluna eta gogorra,
asteburua joan zaigunez
hori izan da bizkorra

Astearteak urruti dauka
bihotzeko ostirala,
hiru bat egun falta direnez
gertatzen zaigu makala.

Asteazkena iritsi da ta
hasi beharko lanean,
ikastolatik irten orduko
jolasten hasi kalean.

Osteguna da asteburuko
planak egiteko eguna
ta horrenbeste hitzegiteaz
nazkatuta det laguna.



Egileak: Imanol Esnaola, Aitziber Aranguren, Nerea Zubeldia,
Josu eta Aloña (Aginagako ikastetxea)

Ostiralean dutxatu eta
prestatu parrandarako,
ordubitako etorri behar
ez dugu denbora asko.

Eta berriro astelehenean
eskolan deskantsatzera,
ikasle batzuk etortzen dira
hona adarra jotzera.

Larunbatean eguna lotan
baina gaua iristean,
oso gustora pasatzen dugu
gure herriko kalean.

Doinua: "Aita semeak"

Lehiaketa



Nola izena du baserri honek?

Asmatzaileen artean
Tragoxka tabernan bi
pertsonentzako afaria
zozketatuko dugu

Oraingo honetan huts egin diguzue. Galdera zail xamarra jarri eta erantzun zuzenik jaso ez, hau da marka hau. Duela 35 urte inguru ateratako argazkia jarri genuen aurrekoan. Gaur egun bertara joaten bazarete ez duzue argazkian dagoen bezala ikusiko, baserri aurrea falta baitzaio. Kontuak kontu, Aitzondo baserria duzue argazkikoa. Eta zuek erantzun zuzenik eman ez diguzuenez, ba... afaria hurrengo baterako utzi behar

MARTXOAK 27 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoa-ren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

APIRILAK 1 larunbata

- **Nikolas Izeta zenari omenaldia Udarregi Ikastolako erdiko aretoan gaueko 10.30etan hasita.**

- Bertso eskolako bertso eskaintza

- Nikolas Izetaren bertso-jarriak musikatuta. "Udarregi" (1995)

- Bertsolari gonbidatuen saioa:

- Xabier Amuriza
- Unai Iturriaga
- Jokin Sorozabal

- Bertso jarri musikatua. "Errotonda" (1996).

- Nikolas Izetak kantaturiko eta grabaturik dauden bat-bateko bertsoen entzutea.

- Bertso jarri musikatua. "Ni animalia bat naiz" (1998)

APIRILAK 3 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoa-ren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

OHARRAK

✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai**. SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.

✓ **Rossignol markako snow-board tabla** daukat salgai fija-zio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).

✓ **Pisua salgai Kalezarren** garaje eta buhardila batekin. Interesatuak deitu telefono honetara: 943 36 66 23 (Arratsalde).

✓ **Pisu bat dut salgai Usurbilen** eliza inguruan. Telf. 943 21 31 18 (17.00etatik aurrera)

✓ **Pertsona euskaldun bat behar da bi neska zaintzeko.** Deitu 943 36 16 95 telefonora.

✓ **Lancia Delta kotxea daukat salgai.** SS-AU. 89.000 km. Deitu 943 3720 34 telefonora. Goizeko 9.00etatik 16.00etara. (Martin)

✓ **Galtzaragainako garajeen kotxearentzako leku bat daukat salgai.** Interesatuak deitu 943 36 57 81 telefonora.

FUTBITO TXAPELKETA

Usurbilgo Gazte Asanbladak futbito txapelketa antolatatu du. Aitzagan, Txiribogan, Zendoian edo Sagastin eman beharko da izena martxoaren 29a baino lehen.

Bi maila izango dira:

-14 urtetik behera → 2.000 pzt.
-14 urtetik gora → 5.000 pzt.

Talde bakoitzean 5-10 jokari bitartean egon daitezke.

Txapelketa apirilaren 1etik aurrera izango da.

Arin-arin eta fandango ikastaroa

Non: UGAko lokalean

Noiz: asteartetan, iluntzeko 8.30etan

Hasiera: apirilak 11, asteartea

Ikastaroa doan izango da

Antolatzailea: Usurbilgo Gazte Asanblada


Jorge Aizpurua eta Bixente Lizarralde 50 urte bete dituzte bazkide modura Andatzpe Elkarte

Datorren martxoaren 26an Andatzpe elkarteak urteroko batzar orokorra egingo du. Bertan, besteak beste, aurten Jorge Aizpurua eta Bixente Lizarraldeko bazkide modura 50 urte betetzen dituztela aktan jaso eta ondoren, bazkideen bazkarian, oroigarri bana emango zaie. Batzarra udaleko pleno aretoan egingo dute. Lehen deialdia goizeko 10.30etan izango da eta bigarren deialdia 11.00etan

Aztergaiak

1. Aurreko batzarreko aktaren irakurketa.
2. Aurreko urteko kontu ematea eta onarpena egokia bada.
3. Bazkide modura 50 urte betetzen dituzten izendapena.
4. Zuzendaritza batzordearen berriztapena. 3 batzarkide
5. Pelotaren memoria
6. Gas naturala jartzeari buruz informazioa
7. Urteko kuota egokitzea
8. Eskariak eta galderak

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4.6.8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2.4.6.8

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUAK.
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMANA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN


SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK

SARRERAK: 500.000 pezatarik. HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21

DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehengo solairua

Bigarrengo solairua


TALLERES SETABU, S.L. TAILERRAK

- GALDARAGINTZA
- ERREMENTALDEGIA
- BALKOIETAKO LEIHOAK
- SOLDADURA

Telf. 943 360 848

Ugarte Industrialdea, 7. pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

MAHUKA GAZTE DENDA




CAROCHE

JACKPOT

Orain marka
berri hauekin!

Egin txotx! Tolare-sagardotegietan



AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

ARZETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91
Urtarrilaren 15etik irekita